



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JABETZA
INTELEKTUALAREN ERREGISTROA

REGISTRO DE LA PROPIEDAD INTELECTUAL
DEL PAÍS VASCO

Eskari zka.:/ Solicitud nº.:

Data / Fecha:/...../.....

Ordua-min / Hora-min: ;

Espediente zka.: / Expediente nº.:

Administrazioak betetzeko / A cumplimentar por la Administración)

LEHEN ALDIZ INSKRIBATZEKO ESKABIDEA: EGILEAK 1 INPRIMAKIA

ESKATZAILEA

IZEN ABIZENAK

NAZIONALITATEA NANA

- BERE IZENEAN ETA ESKUBIDEEN TITULAR GISA
- ESKUBIDEEN TITULARRAREN ORDEZKARI GISA (Ordezkatzeko ahalordea erantsi)

JAKINARAZTEKO MODUA

<input type="radio"/>	JAKINARAZPENAK TELEMATIKOKI JASO NAHI DITUT
<input type="radio"/>	JAKINARAZPENAK POSTA ZIRTATU BIDEZ JASO NAHI DITUT
	HELBIDEA ZKA ESK PISUA LETRA..... UDALERRIA PROBINTZIA HERRIALDEA..... K.P. TFNOa ESKUKO TFNOa E-MAIL

OBRAREN IZENBURUA (Erantsitako alean ageri den berbera izan beharko da)

EGILEA(K) (Dagokion laukitxoa markatu)

- EGILE BATZUK (EGILEAK 1 inprimakiaren eranskina I bete)
- EGILE BAKARRA:

IZEN ABIZENAK

NAZIONALITATEA NANA

HELBIDEA ZKA ESK PISUA LETRA

UDALERRIA PROBINTZIA HERRIALDEA.....

K.P. TFNOa ESKUKO TFNOa E-MAIL

ESKUBIDEEN TITULARRA (Dagokion laukitxoa markatu)

- EGILEA(K)
- ESKUBIDEAK TRANSMISIO BIDEZ JASO DITUEN BESTE TITULAR BAT
- ESKUBIDEAK TRANSMISIO BIDEZ JASO DITUEN BESTE TITULAR BATZUK (EGILEAK 1 inprimakiaren Eranskina II bete)

Pertsona Juridikoa
SOZIJETATEAREN IZENA CIF

Pertsona Fisikoa:
IZEN ABIZENAK

NAZIONALITATEA NANA

HELBIDEA ZKA ESK PISUA LETRA

UDALERRIA PROBINTZIA HERRIALDEA.....

K.P. TFNOa ESKUKO TFNOa E-MAIL

- Identitatea egiaztatzeko Nortasuna Agiriko datuak bitarteko elektronikoen bidez kontsultatzearen aurka nago
.....(e)n,(e)koaren (e)(a)n

ESKATZAILE(AR)EN/TITULAR(RA)REN SINADURA

Ebazteko epea: Ebazteko eta dagokion jakinarazpena egiteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabide hau sartzen den egunetik zenbatzen hasita, Erregistroaren Erregelamenduko 24.1 artikuluari jarraiki (martxoaren 7ko 281/2003 Errege Dekretua. Martxoaren 28ko BOEn argitaratua). Aipatutako epean ebazpen espresurik eman ez bada, eskabidea baietsitatzeko joko da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24 artikulua.

DATU PERTSONALAK Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betez, jakinarazten dizugu zure datuak Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren jabetza diren jabetza intelektualako eta erregistro-publikitateko eskubideen inskripzioa izeneko tratamenduan sartuko direla. Hona hemen datuen oinarriko informazioa:

- Arduraduna:** Kultura eta Kirol Ministerioko Kultura Industrien, Jabetza Intelektualaren eta Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia. Arduraduna: Jabetza Intelektualaren Zuzendariordetza Nagusia. Jabetza Intelektualaren Erregistro Zentralea.
- Tratamenduaren helburua:** obrak Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatzeko kudeaketa integrala.
- Legitimizazioa:** interesdunaren adostasuna; jabetza intelektualaren arloko araudiak Erregistroari esleitzen dizkion funtzioak betetzeko.
- Erregistro hartzaileak:** Erregistro publikoak; Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorra.
- Eskubideak:** datuak eskuratzea, zuzentzea eta ezabatzea, tratamendua mugatzea eta haren aurka egitea, bai eta datuen tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabakien xede ez izatea ere.
- Eskubideak baliatzea:** tratamenduaren arduradunaren aurrean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean edo Datuak Babesteko ordezkararen aurrean
https://www.euskadi.eus/arbtrajea_salaketa_erreklamazioa/aurretiazko-erreklamazioa-datuak-babesteko-ordezkararen-aurrean/web01-tramite/eu/

Egileen inprimakirako jarraibideen amaieran informazio gehigarria kontsulta dezakezu.

- Baimena ematen dut.

“EGILEAK 1” INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

(1) ESKATZAILEA:

Inskripzioak eskatzeko eskubidea dute ondorengo hauek: obraren egileek, jatorrizko gainerako titularrek eta obraren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen ondorengo titularrek.

- Egilea edo titularra pertsona bakarra denean, bera agertuko da eskatzaile gisa, eta berak sinatuko du.
- Egileak edo titularrak bat baino gehiago badira, bat agertuko da eskatzaile gisa, jakinarazpenetarako, eta guztiek sinatuko dute inprimakia.
- Eskubideen titularra pertsona juridikoa denean, haren legezko ordezkaria agertuko da eskatzaile gisa, eta hark sinatuko du, ordezkari dokumentu bidez egiaztatuta.
- Egilea edo titularra adingabea bada edo desgaitasunen bat aitortua badu, guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duen pertsona agertuko da eskatzaile gisa.

(2) JAKINARAZTEKO MODUA

- Eskatzaileak jakinarazpenak zer bitartekoren bidez jaso nahi dituen adieraziko du: bide telematikoz edo posta ziurtatuz. Bietako bat bakarrik aukeratu dezake.
- Eskatzailearen datu guztiak bete beharko dira: helbidea, telefonoa, mugikorra eta helbide elektronikoa.

(3) OBRAREN IZENBURUA:

Inskribatu nahi den obraren izenburua adieraziko da, eta identifikazio-alean ageri den izenburu bera izan beharko du.

(4) EGILEAK:

Obra sortu duen pertsona fisikoa da egilea. Egile bakar bat baldin badago, gurutze bat jarri behar da **“Egile bakarra”** laukitxoan, eta, egilea eskatzailea ez bada, haren datu pertsonalak adierazi behar dira inprimakian, dagokion atalean. Egile bat baino gehiago izanez gero, gurutze bat markatuko da **“hainbat egile”** laukian, eta haien datu pertsonalak **“Egileak 1”** inprimakiaren **I. eranskinean** jasoko dira (eranskin honetan zehaztuko da obraren zein zati sortu duen egile bakoitzak, bai eta haietako bakoitzari dagozkion jabetza intelektualeko eskubideen ehunekoa ere).

(5) ESKUBIDEEN TITULARRA:

Obraren egilea(k) d(ir)a, salbu eta bere eskubideak hirugarren bati eskualdatu badizkio(te). Eskubideen titularra egilea bada, nahikoa da dagokion laukitxoan markatzea. Eskubideen titularra beste pertsona bat denean, egilearengandik eskuratu dituelako haren aldeko transmisio baten bidez, honako lauki hau markatu beharko du: **“eskubideak transmisio bidez jaso dituen beste titular bat”**, eta bertan adierazi beharko ditu eskubideak hartu dituen pertsona fisiko zein juridikoaren identifikazio-datuak. Transmisio bidezko eskubideen titular bat baino gehiago badago, dagokion laukitxoan markatzeaz gain, haien datuak jaso beharko dira **1. egileen inprimakiaren II. eranskinean**. Bertan, titular bakoitzari dagozkion jabetza intelektualeko eskubideen ehunekoa adieraziko da.

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

PERTSONA FISIKOAK

NANaren fotokopia, edo nortasuna egiaztatzen duen beste agiri batena, atzeritarra bada.

Ez du NANA edo AIZ aurkeztu beharrik izango, baldin eta Nortasun-agiriko datuak bitarteko elektronikoen bidez egiaztatzearen aurka ez badago.

PERTSONA JURIDIKOAK:

Agiri hauen fotokopia:

- Nortasun juridikoa egiaztatzen duen titulua
- Erakundearen pertsona juridikoaren txartela (IFK).
- Erakundearen izenean inskribatzeko eskaera sinatzen duen pertsona fisikoaren ordezkari-ahalordea.

ORDEZKARIA:

Eskatzaile ez bada eskubideen titularra, egileak edo titularrak emandako ordezkari-ahalordea aurkeztu beharko du. Ahalorde hori eskritura publiko bidez edo dokumentu pribatu bidez eman daiteke, notarioak legitimatutako ahalorde-emailearen sinadurarekin, edo Erregistroko funtzionario baten sinadurarekin, **ordezkari-ahalordea ereduaren** bidez.

ADINGABEAK ETA AITORTUTAKO DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK:

Familia-liburuaren fotokopia edo guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza egiaztatzen duen agiriarena.

ESKUBIDEAK TRANSMISIO BIDEZ ESKURATZEN DITUEN TITULARRA:

INTER VIVOS transmisioak

- Eskualdaketa edo eskualdaketak egiaztatzen dituen eskritura publikoaren lehenengo kopia edo jatorrizko agiri pribatua. Halakorik ezean, sinadurak legitimatuta dituztenen kopia sinplea, notarioak edo Erregistroko funtzionario publikoak egina.
Inskripzioa egiteko beharrezkoak diren datuak edukitze aldera, komeni da kontratuan berriaz jasotzea honako alderdi hauek:
 - Lagapena eskusiboa den ala ez.
 - Lagapenaren iraupena.
 - Lurralde-eremua.
 - Lagatzen diren ustiapen-eskubideak.
 - Eskubideak zein ustiapen-modalitatetan lagatzen diren.
 - Lagapen-prezioa.
- Dagokion zerga ordaindu izana egiaztatzen duen agiri, Ogasun Publikoan likidazioa egiteko aurkeztu izana egiaztatzen duena, edo salbuetsita dagoela egiaztatzen duena.

"MORTIS CAUSA" TRANSMISIOAK

- Jaraunspena esleitu eta onartzeko eskritura publikoa. Eskritura horretan, espresuki egon behar du jasota transmititzen diren jabetza intelektualaren eskubideen xede diren obrak.
- Egilearen heriotza agiri.
- Azken Borondateko Ekintzen Erregistroaren ziurtagiria Ekintzen Nahien Erregistroko ziurtagiria.
- Baliozko testamentua edo, halakorik ezean, notario-nabaritasunaren akta edo jaraunselek deklaratzeko autoa.
- Dagokion zerga ordaindu izana egiaztatzen duen agiri, Ogasun Publikoan likidazioa egiteko aurkeztu izana egiaztatzen duena, edo salbuetsita dagoela egiaztatzen duena.

LAN-HARREMANAREN BIDEZKO TRANSMISIOA

- Egilearen eta enpresaren artean sinatutako lan-kontratuaren kopia.
- Inskribatu beharreko eskubideen xede den obraren egilearen adierazpena. **Soldatapeko Egilearen Adierazpena** eta **Ordenagailuko Programaren Soldatapeko Egilearen Adierazpena** izeneko ereduak baliatu beharko ditu horretarako. Bertan, adierazi beharko du obra hori lan harremanari jarraiki sortu dela.

ESKUBIDEAK ESKUALDATZEKO BESTE MODU BATZUK

- Bat-egitea edo zatiketa egiaztatzen duen eskritura publikoa edo dokumentua
- Administrazio-ebazpenaren edo erabaki judicialaren lekukotza, edo horren kopia.

DATU PERTSONALEN INFORMAZIO GEHIGARRIA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa betez (datu pertsonalen tratamendua eta zirkulazio askea direla-eta, pertsona babesari buruzkoa), jakinarazten da: datu pertsonalak tratatu eta sartuko dira Jabetza Intelektualeko eta Erregistro-publikitateko eskubideen inskripzioa izeneko tratamenduan (beronen titularrak dira Kultura eta Kirol Ministerioa, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila).

Arduraduna: Kultura eta Kirol Ministerioi Kultura Industrien, Jabetza Intelektualaren eta Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia.

DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA:

Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz, Araba

Telefonoa: 945018680

Web orria: www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/datuak-babesteko-ordezkarria/hasiera/ (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/datuak-babesteko-ordezkarria/hasiera/>)

TRATAMENDUAREN HELBURUA: obrak Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatzeko kudeaketa integrala.

LEGITIMAZIOA: interesdunaren adostasuna; aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko ezinbesteko tratamendua; tratamenduaren arduradunari emandako interes publikoaren izenean edo botere publikoak erabiliz egindako misio bat betetzeko beharrezko tratamendua; Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, arlo horretan indarrean dauden legezko xedapenak erregularizatu, argitu eta harmonizatzen dituen.

DATUAK KONTSERBATZEKO EPEA: iraunkorra.

ERREGISTRO HARTZAILEAK: Erregistro publikoak; Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorra

DATUEN BABESAREN ARLOKO ESKUBIDEAK

- Sarbidea:** Interesdunak eskubidea dauka bere datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez egiazta diezaion tratamenduaren ardura duen organoak, eta, hala bada, datuok eskuratu ahal izango ditu.
- Zuzenketa:** Bere datu pertsonal akasduak zuzentzeko eskubidea dauka interesdunak, eta osatu gabe dauden datu pertsonalak osatzekoa, behar bada, adierazpen gehigarri baten bidez.
- Ezabatzea. Ahaztua izateko eskubidea:** Bere datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea izango du interesdunak baldintza hauetan:
 - Datu pertsonalak jadanik ez direnean beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan
 - Interesdunak tratamendua egiteko baimena kentzen duenean, eta tratamenduak ez badu beste oinarri juridikorik
 - Interesdunak tratamendua aurkaratzen duenean, eta ez denean bestelako arrazoi juridikorik gailentzen tratamendurako
 - Datu pertsonalen tratamendua legez kontra egin denean
 - Datu pertsonalak ezereztu behar badira, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaien Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean ezarritako lege-betebehar baten indarrez.
 - Datu pertsonalak jaso badira 8.1 artikuluan aipaturiko informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintzaren ingurumarian. (adingabeen datuen tratamenduari aplikagarriak zaizkion baldintzak, informazioaren gizarteko zerbitzuak direla eta).
 - Datu pertsonaletarako esteka oro ezabatua izateko eskubidea izango du interesdunak, baldin eta datuok ezereztuko betebeharra badago (ahaztua izateko eskubidea).
 - Datu pertsonaletarako edozein lotura ezabatzeko eskubidea, datu horiek ezabatzeko betebeharra dagoenean (ahaztua izateko eskubidea).
- Muga:** Bere datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubidea izango du interesdunak baldintza hauetan:
 - Datu pertsonalen zehaztasunaren aurka egiten denean, tratamenduaren ardura duen organoak datuon zehaztasuna egiaztatzeko adinako epe batez.
 - Tratamendua legez kontrako denean eta interesdunak datu pertsonalak ezereztearen aurka egiten duenean eta, ordainetan, haien erabilera mugatzeko eskatu.
 - Tratamenduaren arduradunak jadanik behar ez dituen datu pertsonalak tratamenduaren helburuei begira, baina interesdunak bai, erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.
 - Interesdunak tratamenduaren aurka egin duenean, eta tratamenduaren arduradunaren arrazoi legitimoak interesdunaren arrazoi ginetik dauden ala ez egiaztatzen den bitartean.
- Aurkakotasuna:** Interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, tratamenduaren arduradunari galarazteko berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egitea, tratamendua beharrezkoa bada ere interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko edo ahal publikoak erabili edo hirugarrenen interes legitimoak babesteko, baita profilak egiteko ere.
 - Tratamenduaren arduradunak datuak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik arrazoi larriak daudela edo datuok beharrezkoak direla erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.
 - Datuen tratamenduaren helburua bada ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa, interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, salbu eta tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.
- Tratamendu automatizatua:** Eskubide honen bidez bermatu nahi da interesduna ez izatea tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta harengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten jomuga, profilak egitea barne.

ESKUBIDEAK EGIKARITZEA: tratamenduaren arduradunaren aurrean eskubide horiek baliatzeko aukera duzu, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez (Errege Plaza, 1 28004 Madril – Propiedad.intelectual@cultura.gob.es):

Era berean, edozein erreklamazio aurkezteko ahalmena duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, *edo, bestela, auzibidera jo aurreko erreklamazio* bat egin dezakezu Datuak Babesteko ordezkarriari: www.euskadi.eus/arbitraje_salaketa_erreklamazioa/aurretiazko-erreklamazioa-datuak-babesteko-ordezkarriaren-aurrean/web01-tramite/eu/ (https://www.euskadi.eus/arbitraje_salaketa_erreklamazioa/aurretiazko-erreklamazioa-datuak-babesteko-ordezkarriaren-aurrean/web01-tramite/eu/)

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

- Datuak babesteko EAEko ordezkarriaren webgunea: (www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/datuak-babesteko-ordezkarria/hasiera/ - <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/datuak-babesteko-ordezkarria/hasiera/>)
- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ([eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?Uri=CELEX:32016R0679 & from = ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?Uri=CELEX:32016R0679&from=ES))
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa <https://www.boe.es/buscar/doc.php?lang=eu&id=BOE-A-2018-16673>